

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udan zakarrontziak gehiago hustuko ditu Udalak

Dispositiboa ekainetik irailera bitartean zabalduko da gehien, eta sei errefortzu-lantalde ere izango ditu

Donostiako Udalak zakarrontzien hustuketa indartzeko dispositibo berezia jarri du martxan, uda-garaian hiriak duen jarduera-hazkundeari erantzuteko.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak nabarmendu duenez, “Donostia asko aldatzen da udako hilabeteetan. Askoz ere jende gehiago dugu gure kale, hondartza eta pasealekuetan, jarduera handiagoa da eta espazio publikoaren erabilera askoz ere biziagoa. Horregatik, udal-zerbitzuak ere egokitu eta indartu egin behar dira, erantzunik onena eskaintzen jarraitzeko. Izan ere, adierazi duenez, baliabide hori “hiria kudeatzeko moduaren adibide bat da: planifikazioa ezarri, premiei aurrea hartuz eta baliabideak gehien behar den lekuetan erabiliz”.

Hiriaren erritmora egokitutako errefortzu progresiboa

Sistema berria ez da urte osorako dispositibo finko gisa planteatzen; aitzitik, une bakoitzeko benetako premien arabera eboluzionatzen du. Ohiko eskuzko ekortzearen osagarri da zerbitzu hau, eta hondakin gehien sortzen diren puntuak indartzeko aukera ematen du.

Jarduera apalagoko hilabeteetan, zerbitzua igarobide handiko eremuetan ematen da, hala nola Parte Zaharrean, Boulevardean, Kaian, Kontxa pasealekuan, Gipuzkoako plazan eta Artzain Onaren plazan, Grosen, Zurriolan, Saguesen eta Urumea ibaiko zubietan. Eremu horretan 300 zakarrontzi inguru daude, eta horietatik 120ri bigarren hustuketa bat egiten zaie.

Udaberrian eta udazkenean, asteburuetan eta jaiegunetan, dispositiboa zabaldu egiten da Ondarretarantz, Haizearen Orrazirantz, Errege-erregina Katolikoetarantz eta Easo plazarantz: 420 zakarrontzi daude eremuan guztira eta horietatik 230 ingururen hustuketa indartzen da. Dispositiboa ekainetik irailera bitartean zabaltzen da gehien, zerbitzua Erdialdetik hegoaldera zabaltzen baita: Amarara, Loiolako Erriberara, Matiarra eta Mirakontxara. Aldi horretan 600 zakarrontzi ingurutan jarduten da, eta horietako 360ren hustuketa indartzen da.

Hedatze horrekin batera, eremu horietako paperontziek irudi berri bat dute, Donostiak ingurumenarekiko duen konpromiso iraunkorrari balioa ematen diona. Diseinuak hondakinak behar bezala bereizteari buruzko mezuak eta ikonografia ditu, eta herritarren sentsibilizazioa indartzen eta espazio publikoa

Prentsa oharra

Nota de prensa



arduraz erabiltzea sustatzen du. “Ingurumenarekiko dugun konpromiso iraunkorra” “Nuestro compromiso con el Medio Ambiente”.

“Hiri garbi bat ez da kasualitatea. Atzean antolaketa, baliabide teknikoak eta, batez ere, jende askoren eguneroko goiz-goizeko lana dago, donostiarrek eta bisitariak hiri zaindu bat aurki dezaten”, azpimarratu du Garcíak.

Neguko hilabetetan, dispositibo honek lantalde bakarra du. Kopuru horrek gora egiten du, eta udako jarduera handieneko asteburuetan sei errefortzu-lantaldek egiten dute lan.

Ibilgailu elektrikoak, garbiketa jasangarriagoa eta isilagoa egiteko

Zerbitzuak % 100 elektrikoak diren Goupil G4L ibilgailu arinak erabiltzen ditu: ez dute kutsagarririk isurtzen eta garbiketa-lanak egitean zarata-maila askoz ere murriztagoa dute.

Ibilgailu horiek bereziki egokiak dira oinezkoentzako eremuetarako eta kale estuetarako —besteak beste, Parte Zaharrerako—, eta 1.100 kilotik gorako karga-edukiera eta 3,6 metro kubikoko kutxa-bolumena dute.

“Kaleak zaintzeko moduan ere Donostia erreferentzia izatea nahi dugu.. Etorkizuneko garbiketak efizienteagoa izan behar du, baina baita jasangarriagoa ere: zarata gutxiago, isuri gutxiago eta tresna hobeak gure lantaldeentzat”, adierazi du zinegotziak.

Zerbitzua hobetzeko teknologia

Errefortzu-zerbitzuak mugikorreko aplikazio bat erabiltzen du, zerbitzuaren jarraipena denbora errealean egiteko eta "zakarrontzi kritiko" izenekoak kontrolatzeko, hau da, gehien erabiltzen direnak edo jende gehien biltzen den lekuetan daudenak.

Gainera, urriaz geroztik, Donostian sei uharte ekologiko adimendun daude, eguzki-plakadun zakarrontzi trinkotzaileak: betetze-mailaren berri ematen duten sentsoreak dituzte eta horrek aukera ematen du ibilbideak optimizatzeko.

“Eredu erreaktibo batetik datuetan oinarritutako eredu adimentsuago batera igarotzen ari gara. Aurrea hartzen, beharrak detektatzen eta herritarrei ematen diegun erantzuna hobetzen laguntzen digu teknologiak”, azaldu du Garcíak. Zinegotziak, gainera, herritarren lankidetzari balioa eman nahi izan dio: “Udalak baliabideak jartzen eta zerbitzuak indartzen jarraituko du, baina Donostia garbi mantentzea zeregin partekatua da. Gure kaleak, hondartzak eta auzoak zaintzea ere guztion konpromisoa ere bada”.

“Jarduera handieneko uneetarako prest dagoen Donostia nahi dugu, baina gure hiria bereizten duenari uko egin gabe: hiri garbia, zaindua eta bizi-kalitate handikoa izatea”, adierazi du.